

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Hasierako onespena ematea arau subsidiarioen aldaketa puntualari

Udalbatzak, 2021eko urriaren 13an egindako ohiko bilkuran, hasierako onespena eman zion udal plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntualari. Aldaketa horren helburua da AL-16 eremuaren antolamendu xehatua aldatzea, hainbat lurzatitan banatu ahal izateko, bai eta AL-30 eta AL-31 eremuen zonakatze xehatua aldatzea ere, plangintzan aurreikusitako glorietairen kokapena aldatzeko eta konponbide egokia emateko AL-16 eremuan antolatutako lurzatietarako sarbideei eta udalerriko etorkizuneko garapenei, Sergio Martínez arkitektoak eta Andrés Iturralde mendi-ingeniariak idatzitakoaren arabera.

Aldaketa horren espediente osoa jendaurrean jartzen da hilabetez, iragarkia ALHAOn eta probintzian hedapen handiena duten egunkarietako batean argitaratuz, interesdunek eta eragindakoek aurkeztu ahal izan ditzaten egoki jotzen dituzten alegazioak eta erreklamazioak.

Dulantzi, 2021eko urriaren 14a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA